


EUSKARAK LILURATUA

Mikel Zarate Lejarraga Txori Herriko Lezaman jaio zen 1933ko martxoan, Larretzalde etxean.

Herri honetan hazi zen, lehenengo ikasketak ere bertako eskolan bete zituelarik. Aparejadore ikasketak eginik bere aitarekin batera lanbide honetan aritu zen, baina hogeitazero Derioko Seminarioan sartu zen apaiz egiteko.

Urte honetantxe, 1953an alegia, bere bizitzaren zentzua aldatuko zuen gertakari garrantzitsu bat suertatu zitzaion: Mungia ondoko Laukariz herrian bere euskaltzaletasuna biztu zion Eutiki Zulueta apaiz bermeotarrarekin egin zuen topo: «Euskalduna izan eta ez dakizu zeure berbetea leiduten eta idazten? Ikasi egin behar zeunke. Ez dozu uste lotsagarria dala guri euskaldunoi jazotzen jakuna?». Artean euskaldun alfabetatu gabea izanik elkarrizketa haren eraginez ekin zion gure hizkuntza lantzeko ahalegin sutuari. Berari eskainitako Euskal Literatura obraren sarreran aitortzen duenez «Elkarrizketa ta hausnartze haien ondorio izan dira ordutik hona euskaraz egin ditudan lanak.»



Urteak geroago bere lehen fruitu idatziak ematen hasi zen eta gure hizkuntzarenganako maitasun honek zeharo gatibatu zuen haren bizitza: «Nire inguruetan erdal gorroto ta erdal hotsa ugaritu arren ere, maite nuen gure euskara. Eta hauxe esaten nion neure buruari: «Txotxoloa halakoa!». Ez dakit nik nola eta zergatik baina, txotxolotu egin nintzen euskara eta Euskal Herriaz (...). Ez da jakitekoa norainoko maitez oratu dezakeen bat hizkuntza batek! Ni egin ninduen, behintzat.»

1969an, Loiu ondoan dagoen Lauroko auzo-elizaren ardura hartu zuen urtean, Filologia Erromanikoa hasi zuen Deustuko Unibertsitatean eta irakasle aritu zen 78 eta 79 urteetan bertako Euskal Filologi Sailean.

Bere sendian eta herritarren artean izan zituen bere euskal errorik onenak Mikel Zaraketek.



Halaber irakasle izan zen 1970etik aurrera Derioko Udako Euskal Ikastaroan.

1979ko apirilean hil zen Usategi Behekoa etxean, Lezamatarrek Lejarrene izenaz ezagunago duten etxean. Gizon gaztea artean, Mikelen bat-bateko heriotzak euskaltzale eta adiskide askorengan sortu zuen tristuraren eredu gertatu zen haren hileta, Lezama herri txikian sekulako jendetza bildu zelarik azken agurra ematera.

Lejarrene edo Usategi Behekoa, Lezaman. Etxe honetan hil zen Mikel Zarate 1979ko apirilean.



GIRO ERDALTZALEAN, TINKO

Mikel Zarate gure Herriaren historiaron aldi latz batean bizi izan zen. Familia abertzalean hazia, txikitatik sufritu behar izan zuen indar zapaltzailearen eraso: aitaren gartzelaldia eta, gaztaroan, garai hartan euskaraz berba egiteko debekua pairatu zituen.

Gertaera hauek denboran urrunduxe sentitzen baditugu ere, ez dira ahaztekoak, ordea, belaunaldi askoren euskalduntasuna ahuldu edo ezabatu bait zuten. Mikelen herri txikian, Lezaman, kalean baino bortitzago bertako eskolaren bidez gauzatu zen deseuskalduntzea eta euskararekiko gutxiespena. Honela ulertzen da hogei urterekin bere burua alfabetatu gabe aitortzea.

Hala ere, gertatua akuilua balitz bezala, handik aurrera indar ezin biziagoz murgildu zen gure hizkuntza eta letren munduan.

Baina giro antieuskaldun hau hurretik jarraitzen zitzaion, baita bere

apaiz ikasketak egitean ere. Esaterako, bere izena, Mikel, behin baino gehiagotan defendatu behar izan zuen «Miguel» deitzea nahi zuten abaderen batzuen aurrean. Edota, seminarista adiskide euskaldunekin — euskaraz, noski— harreman gehiegi mantentzeagatik. Edota, mezan euskaraz kantatzeko ezintasuna, ez bait zen mundu guztiak uler zezakeen hizkuntza. Eta abar.

Etsipenezko giroa, benetan, gure hizkuntza eta honi loturiko guztia, bihotzez maite zuen bizkaitar handi honentzat. Eta guztiarekin ere, irmo, tinko eutsi zion bere euskalduntasunari.



IDAZLE OPAROA

Idazle biziak labur batean hainbat lan egin zuen Zaratek, elaberri, olerki, saiakera, gramatika lan, eta abarretan.

IZAERA IREKIA

Mikel Zarate ezagutu eta berarekin harremanak izan zituzten guztiek aitortzen dute gizon handi honen izaera irekia. Beti ere jarrera alai eta adiskidetsua erakusten saiatzen zen, bere joera eta ikuspegi baikorra inguruko buru-bihotzetan sentierazten.

Mikelen ikasle izateko zoria izan genuenok ongi gogoratzen ditugu Komunikaziorako haren dohain bereziak. Gogoz ahalegintzen zen irakaspen huts lehorrei itzuri egin eta sentimenduz transmititzen bere

jakituria, entzulea gatibatzeko moduan. Bestela esanda, zekienaz gainera sentitzen zuenaren partaide ere egiten zituen ikasleak edo eta entzuleak; azken batean, gure hizkuntza, gure literatura, euskal gogoaren partaide.

Eta elizkizunetan ere agerian uzten zuen izaera ireki hau. Bertsoetarako zuen zaletasun eta trebetasunaz baliatuz fededunekin harreman estuagoak izateko bideak urratu zituen.



IDAZLEAREN BARNE DEIA

Mikel, hemen, C.J. Cela-rekin ageri zaigu. Zaratek literatur balioak oso barnetik maite izan zituen.

IDAZLE OPAROA

Mikel Zarate idazle oparoa izan genuen. Hasiera batean meza liburu batzuk itzuli eta egokitu zituelarik, 1970ean hasi zen, ordea, bere idazle etaparik emankorrena, 1979an bere heriotza gertatu artean hamabi liburu argitaratuz. Haez gainera beste zenbait geratu zitzaion inprentaratu gabe eta hainbat bere gogoan eta buruan.

Besteak beste, bi gune nagusitan sustraitu ziren haren obrak, Deustuk Unibertsitatean eta Derioko Udako Euskal Ikastaroan.

DERIOKO SEMINARIOA
Zarateren euskal lanak, Derioko Ikastetxe honetan edo beronen inguruko taldeetan burutu ziren. Benetako maisugoia izan zen Mikelen bertako iharduna.

Lehenengoan, 1969-1974 urteetan, Filologia Erromanikoa karrera burutu zuen, eta 1978an hasita Euskal Filologi Sailean irakasle lanean ihardun zuen. Oso aberasgarria gertatu zitzaion giro hau, literatur korronte, irakasle, idazle, pentsamolde berriekin eta, kontaktuan jartzeko balio izan zionez gero.

Derioko Udako Euskal Ikastarokoa ere garrantzi handia izan zuen Mikel Zarateren obra osoan. Literatur emaitza hutsak baino areago lan praktikoak burutu zituen giro honetan azaldu zituen jakintzagaiei lotuak, hala nola literatura, testu azterketa, deklinabidea edo euskararen historia. Denetatik, aipagarri dira *Bizkaiko euskal idazleak* (1970) eta *Euskal Literatura. Azterbideak, azterketak, aztegaiak I-II* (1977-1978).



IRAKASLE

Irakasle alderdiak ere garrantzi handia du Mikel Zarateren ekarpena ulertzeko. Izan ere, euskal letren munduan bere kabuz murgildu zen, —berak aitortu bezala, *Kresala* izan zuen lehen irakurketa, lantze prozesu neketsu baten bidez gainditzea eta gozatzea lortu zuena— eta, horregatik, euskara eta euskal literaturaren aberastasunez jabetze bidean aurkitu zituen hutsuneak betetzen ere ahalegindu zen adorez.

Irakasle lan zuzenaz baino areago argitalpen didaktikoen bidez ekin zion helburu hau betetzeari. Jokabide honen ondorio dira Derioko Udako Euskal Ikastaroaren babesean argitara emandako obrak. Mikeli, neurri handi batean, autodidakta izan beharra gertatu bazitzaion ere —ez ditzagun ahantz frankismoak gure hizkuntza eta letrei ezarritako baldintza gaiztoak—, ez zuen horrelakorik nahi euskaltzalegaientzat eta, horrela, beroriei bidea errazten saiatu zen: «Liburu bat idaztea pentsatu nuen, irakurtzen irakasteko liburu bat. Hainbeste urtetan irakasle gabeko ikaslea izan ondoren, irakasle izan nahi nuen, irakurtzean ikusi, bildu, aztertu eta moldatu nituen literatura edertasun gozagarri batzuk erakutsi eta eman zuei, irakurle eta irakasle jakintsu, edertzale eta trebeak izan zintezten zuek ere.»

Arlo honetan *Euskal Literatura I* eta *II* nabarmentzen dira, gure letren aberastasunetan arakatu eta idazle zahar zein berrien literatur zati aukeratuen balioak agerian ipintzeko saio eder direnak, irakurleak dasta eta goza ditzan. Bost zituen gogoan baina, zoritxarrez, heriotzak eten zuen haren asmoa.

EUSKAL LITERATURA

Hizkera ederra lantzeari muntarik handiena eman zion Zaratek, eta zeregin honetan laguntzeko honelako liburuak prestatu zituen.


EUSKARA BATUAREN BULTZATZAILE

«Bizkaiera»ren defendatzaile sutsuen giroan ibiltzea egokitu bazitzaion ere, bere jarrera hizkuntz molde batu baten alde lan egitea izan zen; euskara oso eta standard baten eredu —baturanzkoa deitzen zuen— dira haren obrak, hizkuntzazkoak legez literaturazkoak ere.


Izan ere, Arantzazuko Biltzarra egin berria, bere lehenengo lanetatik hasita nabaria da, ageri-agerikoa, euskara batuaren inguruko kezka. Bizkaieraz eman zuen argitara bere lehen liburua 1970ean, baina berehala eutsi zion baturanzko moldeari. Zentzu zabalean, bizkaitarrak zein beste euskalkietakoak, irakurle euskaldun oro zuen gogoan.

*Bat euskal herriak
bat euskalkiak
bat denok beti
batu dezagun
euskara
eta ikasi,
berritu dezagun
Euskal Herri.*

EUSKALTZAINDIAN
Euskal Akademiaren ihardunaldietara eraman zituen Mikelek bere ardura eta kezkak.



EUSKARA BATUA
Baturantz joango zen hizkuntza literarioa nahi zuen Zaratek Euskalkietatik, eta berak batez ere bizkaieratik, euskara baturako bidea honelako argitalpenen bidez samurtzen ahalegindu zen.



Zinez, maiteegi zuen euskara txokokeriei eta ikuspuntu atzerakoiei amore emateko. Dena dela, *Euskal Deklinabidea* liburuaren sarrerak salatzen duenez, atzera egin beharra ere izan zuen, ordura arteko bidea hautsiz: bizkaieraren defentsa amorratua azaltzen du, ortografia aldetik ere nabaria dena, *h*-ren erabileran bere jokabidea hautsiz. (Kontutan hartu behar da garai hartan letra horren inguruan antolatua zegoen «borroka» ideologiko-linguistikoa, haserraldi saminen sortzailea). Geroagoko obrek, berriz, ez dute erakusten gatazka honen jarraipenik eta baturanzko idazkera ageri dute. Baina, Mikeli, guzti hau mingarria zitzaion; bere jarrera berrizalearekin bat ez zetorren arazo honek atsekabe oso larriak sorterazi zizkion: presio handiak jasan zituen, bere osasunean eragina izan zutenak.



Eta, hala ere, euskara-molde berri bat ontzen jakin zuen arren, herritik harakoa zen bere adierazpidea, bizitasun eta gozotasunez betea, argia, baliabideetan oparoa, bizkaiera, bere jatorrizko euskalkiaren aberastasunetan eraikia.



PROSALARIA ETA OLERKARIA

Prosolari bikain eta goi mailako poeta azaldu zen Mikel Zarate.


Poesi lanetan *Higidura berdez* (1977) eta *Bizipenen bultzadaz* (1978) eman zituen argitara. Tamalez, *Etorriaren zorabioz* argitara gabe geratu zen.

Gehiago dira eta, kritikarien eritzian, maila are hobekoak bere prosazko lanak: *Hurgintza minetan* (1973), *Ipuin antzeko alegi mingotsak* (1975) eta Mikel hil ondoan kaleratu ziren *Utopiaren fantasian* eta *Bilbo irribarrez*. *Hizunigu* tituluko nobela laburra argitaratu gabe dago.

Obra hauek osatzen duten batasunean hizkuntza bera ikusi behar da, ez bakarrik berau oinarria den aldetik, baizik eta neurri handi batean ardatza eta, nolabait, helburua delako, Mikelek bere barruan sentitu eta sufritzen zuen gure hizkuntzaren egoera apala alaitzeko eta itxaropenez betzeko ahalegin bait dira.

Eta, bestetik, Euskal Herria — Ekidazu (Euzkadi), Txomin Agirrek sorturiko Arranondo (Ondarroa) izenaren tradizioan Zaratek bataiatu zuen bezala— bere osotasunean isladatzen saiatu zen: mundu tradizionala eta berrikuntzen bidez sartzen ari zena, belaunaldien arteko gatazkak, folklorekeria, borroka politikoak, ideologikoak, linguistikoak..., dena azken batean euskal munduaren errealitatearen isladapena, bere bihozkadetan harian eta, horri loturik, bertan murgilduriko gizakien arazoak: nortasuna/alienazioa, askatasuna.

9



PROSA ETA OLERTIA

Literatur sormen urduri eta emankorra erakutsi zuen Zaratek: olerkiak eta prosa, elkarren ondoan eman zituen. Ikusi besterik ez dago *Higidura berdez* (1977), poesia da; eta hasierako hura, *Hurgintza minetan* (1973), hitz lauz eman zuen. Hilondoko argitalpenak ditugu besteok.

SARI ZALETASUNA

Bere lanak sariketetara aurkezteko zaletasun bizia agertu zuen beti Mikelek eta horren ondorio dira irabazitako sari ugariak. Bere lehen nobela, *Hurgintza minetan*, 1972ko «Txomin Agirre» Sariaren irabazle gertatu zen, baita hurrengo, *Ipuin antzeko alegi mingotsak* 1975eko «Resurrección M^a de Azkue» izenekoarena ere.

Higidura berdez poesi lanak 1976ko «Irun Hiria» Saria jaso zuen, eta «Felipe Arrese Beitia» izeneko 1978an *Etorriaren zorabioz* obrak.

Bizipenen bultzadaz tituluko ere aurkeztu zuen Iruñeko sariketa batera.

Egia esan, sari zaletasun hau autorearen izaerari loturik ulertu behar da: bere buruarekiko apostuak bezalakoak dira proba hauek, euskararen noranahikotasuna eta literaturarako bere ahalmenaren probak. Gure letren mundua apur bat joriagoa, aberatsagoa egin gura zuen bere ekarpenaz eta, helburu horrekin, bere burua behartu egiten zuen «apostu» hauen bidez, goi mailaratu, ahalik eta gehien exijituz, behin eta berriro.



SARIKETAK

Euskal Literatura sustatzeko tresna bezala ikusi zituen Zaratek Sariketak, ata behin ata berriz parte hartu zuen literatur lehiaketa horietan. Hemen «iru Saria» jasotzen (1976).

IDAZLE KONPROMETITUA

Barnetik sentitzen zituen euskarari eta gure herriaren gainbehera orokorrari aurre egin asmoz idatzi

zuen Mikelek: erdara indartsuak bultzaturik, gure jatorrizko hizkuntzaren atzerakada, gizarte euskaldunaren galerarekin batera gertatzen ari zen galera kulturala, gure izaera kolektiboaren nortasun galtze eta ahultze prozesua...

Oso hurbiletik bizi izan zuen berak guzti hau eta, horregatik, premiazkoa egiten zitzaion bere luma eta ekimen etengabearen bidez enparatzea. Presa zuen bere gozamina zen herri hizkeraren aberastasun oro jaso eta zabaltzeko, eta «herriaren barne lokartua esnatu eta indartzeko».

MAISU GIDARIA

Mikelen euskal lana ez zen gizartetik at geratu. Elizgizon eta idazle bezala hizkuntzaren aldeko bere berba zabaltzen ahalegindu zen.



Bestetik, ikuspuntu eta pentsamolde estuetatik aldeginenez, beti ere ideia eta jokabide desberdinak ulertu eta onartu beharra aldarrikatu zuen «gure herriak denetariko borrokalariak eta era guztietako gudariak behar ditu»elako. Eta, zentzu honetan, gazteria zuen beti gogoan, gazteen joera berrizaleak —Lauaxeta eta Lizardi miresten zituen bezala—, gazteak, itxaropenaren sinbolo zirenez gero, berriztatu beharra zuen Euskal Herrian.

HIZKUNTZA BERRITUA

Hizkuntzari betekizun modernoetan leku egoki bat eman beharra aldarrikatu zuen Lezamako idazle bizkaitarrak.



AMESLARIA

Gerora goi-goi mailako obraren bat egingo zuelako ametsetan prestatzen ari zen, egindakoak denetan nagusia izan behar zuen horretarantz zuzenduta baleude bezala, bidea urratzeko edo, bailiran: behinola Etxeparek plazaratu zuen gurariari jarraiki, «estimatze gutitan» zegoen hizkuntzak «ohoria orotan» izan zezan.

Honela, esanguratsua da haren azken obretako baten titulua *Utopiaren fantasian* izatea. Eta, zentzurik onenean esanda, bera ere utopiak zerabilen, baina horri eskerrak kontzientzia eta izpiritu berria erein zituen bere ingurukoen gogobihotzetan eta egiazko maisu lanak utzi zizkigun euskaldunoi. Atal hauetako zenbaitu gure Letren historian ohorezko tokia zor zaie.

ETORKIZUNAREN AMETS

Beti ere lotzen gaituen eguneroko bizitza elkorrerik askatu nahiak etorkizun hobeen ametsa biztu zuen Mikelengan. Izadian bilatu zuen ahalegin handiagoetarako askatasun hatsa.



OMENALDIA

Mikel Zarate gazterik hil zen, berrogeita sei urte bete berri zituela, eta hala ere Bizkaiko eta Euskal Herriko euskaltzalegoaren baitan arrasto iraunkorra utzi du. Hona hemen horren azalpen bat: Bilboko Udalaren omenaldia.

